

Bixkor



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Bake artisauen Parisko auzira naraman trenean idatzi ditut lerro hauek. Landetako oihanean sartzen ari ginela hasi nintzen gai batzuei pentsatzen: desobedientzia zibilak eta ekin-tza zuzenak irekitzen dituen aukerak, euskal gatazkaren tratamendua ‘frantses’ hedabideetan... A, eta Korrika ere izan dugu... Euskara, kontsentsu sozio-politikoa, jazarpen judiziala, errealtate demolinguistikoa... “Asko idatzia izan da horri buruz”, pentsatu dut nire baitan. Bordeleko geltokira iristean, inspirazioa seko-pana nuen oraindik.

Pirka-pirka, Korrikaren iristean nire gurasoen aspaldiko lagun batekin izandako elkarrizketa burura etorri zait. Xutik taldearen kontzertu erdian, Azterketak Euskaraz kolektiboko gazte batzuek bi minutuko diskurtsoa oihukatu zuten, harro, tinko eta ozen. Eta ze plazera “Gora Euskal Herria askatuta!” bati, “Gora!” hain ederra erantzuten dion herria begipean ikustea. Oro har, maite ditut ahoan bilorik gabe mintzo diren pertsonak. Plazer hartzen dut errealtate trikimailurik gabe izendatzea ausartzen diren lagunak entzutea. Goxo zait, hizkera politikoaren lausotzea bizi dugun garaiotan, inportantea baitzait gibel hartzea eta oinarrietara itzultzea.

Badakigu errealtatea zein dorpea den. Baina borrokatzen segitzeko, bakoitzak behar du bere erregaia. Nirea ez da baikortasun zozo eta itsua, baina urratsez urrats irabazten ari garela konbentzitu izatea

Eta taula gainera igo ziren gazte horiek bazuten ausardiatik, etorkizunetik eta determinaziotik. Komunio istant goxoa eskaini zigutela iruditu zitzaidan, baina nik baino esperientzia eta gogoeta maila askoz handiagoa duen delako familia-lagun horri nire plazera adierazi niolarik, ohartu nintzen ez gurela

pertzepzio bera izan. “Haien diskurtsoa nire haurren garaiko ikastola bezain prefabrikatua da! Erraz da 18 urtetan iraultzaile izatea, baina gero zer? Denak bezala frantses administrazioako funtzionario edo bankuko langile bukatuko dute haiek ere. Eta funtsezko arazoak ez dira izendatzen hor. Nork aipatzen du gure arazo guzien muinean demografia arazoa dela? Etorkizunik ez duen eta bi urtean behin ehorzketa aitzineko besta erraldoia antolatzen duen herria gara...”.

Garagardo pitxerra gure edalontzietan hustuz, “doi bat pesimista zela” ohartaraztera menturatu nintzen. “Pesimista ez, errealista!” batekin erantzun zidan. Formula itxietatik haratago, badakit arrazoi parte handia duela. Mundu solidarioago, Euskal Herri askeago, harreman parekideago, planeta jasangarriago, jendarte orekatuago... eta abar luze bat amesten dugunok, badakigu errealtatea zein dorpea den. Indar harremanak erabat desorekatuak dira, hain sistema azkarrak ditugun parean. Baina borrokatzen segitzeko, bakoitzak behar du bere erregaia. Nirea ez da baikortasun zozo eta itsua, baina urratsez urrats irabazten ari garela konbentzitu izatea. Bakoitzak atzeman dezala berea, badugu lan! ●

BABESLEA:

